# Iragarpenak
# Anuncios

LEHENDAKARITZA ETA ZUZENTZA-SAILA
*(Tresnazaingo-Zerbitzu Nagusia. Akurapen eta Balioztapen-Mahaia).*

Presaka bideratu beharrekotzat aldarrikatutako AKURAPEN-IRAGARKIA, Eusko Jaurlaritzako etxe-egoitzako erretze-antolapidetzak berezko gaserako aldatzeko apailuak zuzkitu eta jartzeko. 3512

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA-SAILA
*(Akurapen-Batzorde Nagusia)*

Oinarrizko Hezkuntza Orokorrerako, garraiatzerako gai diren aintzin-eraikuntzazko 12 ikasgela zuzkitzeko eta jartzeko AKURAPENA. 3513

OHOrako, aintzin-eraikuntzazko ikasgelak garraiatzeko eta egokitzeko zerbitzuak herri-lehiaketaren bidez AKURATZEA. 3514

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Ekainaren 25eko 4/1985 FORU ARAUA, 1985erako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontua onartuz. 3514

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA Y JUSTICIA
*(Servicio Central de Mantenimiento. Mesa de Contratación y Homologación)*

ANUNCIO DE CONTRATACION, declarado de tramitación urgente, para el suministro e instalación de equipos para la transformación de las instalaciones de combustión del edificio sede del Gobierno Vasco en Lakua a Gas Natural. 3512

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
*(Comisión Central de Contratación)*

CONTRATACION del suministro y montaje de 12 unidades prefabricadas escolares transportables destinadas a Educación General Básica, mediante el procedimiento de adjudicación del concurso público. 3513

CONTRATACION de los servicios de traslado y acondicionamiento de unidades prefabricadas destinadas a EGB mediante el procedimiento de adjudicación del concurso público. 3514

DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

NORMA FORAL 4/1985 de 25 de Junio, por la que se aprueba el presupuesto del Territorio Histórico de Guipúzcoa para 1985. 3514

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## KULTURA ETA TURISMO-SAILA

**1475**

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak Araupetzen dituen Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen hemeretzigarren artikulua garatzen duen 1985.eko Uztailaren 12ko Kultura Saileko AGINDUA.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen 19. artikuluak dioenez, euskaltegi publikoan irakasle-leku bat hutsik gelditzean, bertako titularrak merezimendu-lehiaketa deia egingo du hori betetzeko, euskaltegi publikoetan lanean ari diren irakasle guztiek parte har dezaketelarik, deialdiak agindutako moduan.

Azaroaren 25eko 29/1983 Lege beraren 13. artikuluak arautzen duenez, Jaurlaritzaren Dekretuz sortu eta HABEri atxikitakoak, eta Foru Diputazioek, Udalek edo horien menpeko erakundeek sortutakoak dira euskaltegi publikoak.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

**1475**

ORDEN del Departamento de Cultura de 12 de Julio de 1985, por la que se desarrolla el artículo decimonoveno de la Ley 29/1983 de 25 de Noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis.

El artículo 19 de la Ley 29/1983 de 25 de Noviembre, que los titulares de los euskaltegis públicos convocarán concurso de méritos para la provisión de las plazas vacantes de profesores, a las que podrán optar todos los profesores en activo en euskaltegis públicos, en los términos que establezca la correspondiente convocatoria.

Por su parte, el artículo 13 de la propia Ley 29/1983, de 25 de Noviembre, califica como públicos los euskaltegis creados por Decreto del Gobierno y adscritos a HABE y los creados por las Diputaciones Forales, Ayuntamientos o Entidades de ellos dependientes.

Honen arabera, eta edozein euskaltegi publikotan diharduen irakaslegoaren mugikortasuna errazteko asmoz, eta HABEren Zuzendari Orokorraren proposamenez,

XEDATZEN DUT:

*Lehenengoa.*– HABEren Erregistroan inskribaturiko euskaltegi publikoetan hutsik geldituko irakasle-lekuak euskaltegi publikoetan lanean ari diren irakasleen arteko meritu-lehiaketaz beteko dira, Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen 19. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

*Bigarrena.*– Urteko lehen lau hilabeteen barruan egingo dira meritu-lehiaketarako deialdiak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edota Lurralde Historikoetako Aldizkari Ofizialetan argitaratuko den euskaltegi publikoaren titularraren Ebazpenez.

Euskaltegi publikoetako titularrek, Aldizkari Ofizialean deialdiak argitaratu aurretik, HABEren Zuzendari Orokorrari eman beharko diote horien berri, Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen 20. artikuluan eta Lege horren 20. artikulua garatzen duen 1984.eko Ekainaren 8ko Kultura Sailaren Aginduaren 9. artikuluan aurrikusten denez, HABEren Zuzendari Orokorrak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdi guztiak batean argitara ditzan urtero maiatzean.

*Hirugarrena.*– Irakasle-lekuaren edukia, izena eta ezaugarriak, eta, era berean, beteko diren postuen eskatzaileek beharko dituzten baldintzak deialdiak araututo dituzten baseetan mugatuko dira.

*Laugarrena.*– Euskaltegi Publikotan lanean diharduten irakasle guztiek har dezakete parte meritu-lehiaketan:

a) HABEren euskaltegietako irakasleek.

b) Administrazio Lokalaren menpeko euskaltegietako irakasleek (Foru Aldundi, Udal edo hauen menpeko Erakundeetakoek).

*Bostgarrena.*– Deitutako meritu-lehiaketetan parte hartzeko eskariak II Eranskinean ematen den instantzia normalduaren bidez egingo dira eta dagokion euskaltegi publikoaren titularrari zuzenduko zaizkio.

Deialdia egiten duen euskaltegi publikoaren errejistroan edo Prozedura Administratiboaren Legeko 66. artikuluak aipatzen duen lekuan aurkeztu beharko dira eskariak, honako agiri hauekin batera:

a) Dagokion euskaltegi publikoaren zerbitzu-orria, HABEko Ikuskatzailetzak egiaztatua.

b) Azal daitezen merituen ziurtagiriak.

c) Eskatzen diren lekuen zerrenda, hobetsienez hobetsien.

Eskariak egiteko epea 15 egunekoa izango da, dagokion deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Lurralde Historikoarenean argitara dadin biharamonetik hasita.

Por todo ello, con el fin de facilitar la movilidad entre el personal que presta servicios en cualquiera de los euskaltegis públicos y a propuesta del Director General de HABE,

DISPONGO:

*Primero.*– La provisión de los puestos de trabajo vacantes de profesores de euskaltegis públicos inscritos en el Registro de HABE se efectuará, de acuerdo con el procedimiento establecido en el artículo 19 de la Ley 29/1983, de 25 de Noviembre, a través del sistema de concurso de méritos entre los profesores en activo de los euskaltegis públicos.

*Segundo.*– Los concursos de méritos se convocarán en el primer cuatrimestre de cada año, mediante Resolución del titular del euskaltegi público correspondiente, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco o en el Boletín Oficial de la Provincia, en su caso.

Con carácter previo a la publicación de las correspondientes convocatorias en el Boletín Oficial, por los titulares de los euskaltegis públicos se dará cuenta de las mismas al Director General de HABE, a los efectos de coordinación y ordenación general previstos en el artículo 20 de la Ley 29/1983, de 25 de Noviembre, y artículo 9 de la Orden del Departamento de Cultura de 8 de Junio de 1984, por la que se desarrolla el artículo 20 de la citada Ley, de forma que el Director General de HABE publique todas las convocatorias conjuntamente en el Boletín Oficial del País Vasco en el mes de mayo de cada año.

*Tercero.*– en las bases que regulen las correspondientes convocatorias se determinará el contenido, denominación y características de los puestos de trabajo, así como los requisitos o condiciones que deban reunir los aspirantes en función de las vacantes a cubrir.

*Cuarto.*– Podrán tomar parte en los concursos de méritos todos los profesores en activo de euskaltegis públicos:

a) Profesores de los euskaltegis de HABE.

b) Profesores de los euskaltegis dependientes de la Administración Local (Diputaciones Forales, Ayuntamientos o Entidades de ellas dependientes).

*Quinto.*– Las solicitudes para tomar parte en los concursos de méritos que se convoquen serán formuladas mediante instancia normalizada que se señala en el anexo II y se dirigirán al titular del euskaltegi público convocante.

Las solicitudes se presentarán en el Registro del euskaltegi público convocante o en las dependencias a que se refiere el artículo 66 de la Ley de Procedimiento Administrativo, acompañado a las mismas la siguiente documentación:

a) Hoja de servicios de correspondiente euskaltegi público, autentificada por la Sección de Inspección de HABE.

b) Documentos acreditativos de los méritos que se aleguen.

c) Relación de plazas que se solicitan, por orden de preferencia.

El plazo para la presentación de instancias será de 15 días, contados a partir del siguiente al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco o en el Boletín Oficial de la Provincia en su caso.

Ere berean, arau hauetako bigarren puntuaren 2. atalean aipatu diren ondorioetarako, eskatzaileek epe honen barruan bidaliko dute HABEren Zuzendaritza Orokorrera, deialdia egin duten euskaltegi publikoetan eskatutako postuen zerrenda, hobetsienez hobetsien.

*Seigarrena.–* I. Eranskinean aurrikusitako baremoaren arabera baloratuko dira merituak, eta horretarako, deialdia egin duen euskaltegiak Epaimahaia izendatuko du, beti ere bertan HABEren ordezkari bat izango delarik.

Eskarian aipatu ez diren edota aipatu arren eskatzaileek moldez kreditatu gabeko merituak ez dira aintzakotzak hartuko.

*Zazpigarrena.–* HABEren Zuzendari Orokorrak eta deialdia egin duten euskaltegi publikoek izendatutako mahaiburuen lehendakariek osatzen duten irakasle-lekuen esleipenerako Batzorde Teknikoak esleituko ditu deialdietako lekuak.

Horretarako, eta merituen balorazioa egin ondoren, deialdia egin duten euskaltegi publikoetako bakoitzak dagokion proposamena egingo dio HABEren Zuzendaritza Orokorrari, irakasle-lekuen esleipenerako Batzorde Teknikoa molda dadin, eta honek ebatziko du deialdietako lekuen esleipena, euskaltegiek aurkeztutako proposamenak ikusiz eta lehiakideek lortutako puntuazioak eta eskarietan azaldutako hobespenak kontuan harturik.

Deialdia egin duten euskaltegi publikoetako titularren euskaltegiaren deialdietako postuak eslei ditzan behin behineko Ebazpena argitaratuko dute Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edota Lurralde Historikoenetan.

Zilegi izango da behin behineko Ebazpenaren aurka murtziloak aurkeztea, bera argitara dadin egunaren biharamonetik 15 egunen barruan. Epe hori igaro eta murtziloak ebatziz gero, behin betiko egingo ditu lehiaketaren emaitzak dagokion, eta era berean Aldizkari Ofizialean argitaratuko den, Ebazpen batek.

*Zortzigarrena.–* Meritu-lehiaketaren bidez euskaltegi publikoren batean irakasle-lekua eskura dezaten HABEren Euskaltegi publikoetako langileek eta funtzionari diren Administrazio Lokalaren menpeko euskaltegietakoek, Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29. 3 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, beren gogozko eszedentzi egoerara igaroko dira jatorrizko euskaltegian eta dagokien udal-euskaltegi publikoan bertako irakaslegoaren egoeran eta lege-errejimen berean sartuko dira.

Meritu-lehiaketaren bidez leku berria eskura dezaten aurreko puntuan aipatu gabeko Administrazio Lokalaren menpeko euskaltegi publikoetako irakasleek hasierako egoera juridikoa mantenduko dute, lehiaketaren ondoren arituko diren euskaltegia edozein delarik ere.

*Bederatzigarrena.–* Ez da onartuko meritu-lehiaketaren bitartez eskuratutako irakasle-lekuari uko egiterik, karguaren jabetza ikasturte berriaren hasierako dataz hartu beharko delarik.

*Hamargarrena.–* Meritu-lehiaketa ebatzi ondoren gerta daitezen betekizunak, izaera libreko aukera-frogatarako deialdi publikoaren bidez beteko dira, aipaturiko Aza-

Asimismo, a los efectos citados en el punto segundo apartado 2 de las presentes normas, los solicitantes remitirán a la Dirección General de HABE, dentro del plazo citado, la relación, por orden de preferencia, de todas las plazas solicitadas en los distintos euskaltegis públicos convocantes.

*Sexto.–* La valoración de méritos se efectuará con arreglo al baremo previsto en el anexo I, para lo cual se designará un Tribunal por el euskaltegi convocante, del que formará parte, en todo caso, un representante de HABE.

No serán valorados los méritos no invocados en la solicitud ni aquellos que, figurando en la misma, no sean debidamente acreditados por los solicitantes.

*Séptimo.–* La adjudicación de los puestos convocados se llevará a cabo por una Comisión Técnica de adjudicación de destinos, de la que formarán parte el Director General de HABE y los Presidentes de los Tribunales designados por los euskaltegis públicos convocantes.

A los efectos citados y una vez efectuada la valoración de los méritos, cada euskaltegi público convocante elevará la propuesta correspondiente a la Dirección General de HABE, a fin de que se proceda a la constitución de la Comisión Técnica de adjudicación de destinos, quien a la vista de las propuestas formuladas por los euskaltegis y teniendo en cuenta las puntuaciones obtenidas por los concursantes así como las preferencias manifestadas por éstos en su solicitudes, resolverá la adjudicación de las vacantes convocadas.

Por los titulares de los euskaltegis públicos convocantes se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, en el Boletín Oficial de la Provincia, en su caso, la Resolución provisional del concurso por la que se adjudiquen los puestos convocados en el euskaltegi de que se trate.

Contra la Resolución provisional podrán presentarse reclamaciones en el plazo de 15 días a partir del día siguiente al que se haga pública; transcurrido el citado plazo y resueltas las reclamaciones, se elevarán a definitivos los resultados del concurso, por Resolución que, asimismo, se hará pública en el Boletín Oficial correspondiente.

*Octavo.–* Los profesores de euskaltegis públicos de H.A.B.E. y aquellos de euskaltegis dependientes de la Administración Local que tengan condición de funcionario y obtengan destino en un euskaltegi público municipal en virtud del concurso de méritos, pasarán a la situación de excedencia voluntaria en el euskaltegi de procedencia, conforme a lo previsto en el art. 29.3 a) de la Ley 30/1984, de 2 de Agosto, y se integrarán en el euskaltegi público municipal correspondiente en las mismas condiciones y régimen jurídico que el profesorado que forma parte de la plantilla del mismo.

Los profesores de euskategis públicos dependientes de la Administración Local no contemplados en el punto anterior y que obtengan nuevo destino por concurso de méritos, mantendrán su situación jurídica inicial independientemente del euskaltegi en que preste servicios con posterioridad al concurso.

*Noveno.–* No se admitirán renuncias a las plazas obtenidas en virtud del concurso de méritos, debiendo efectuarse la toma de posesión de los nuevos destinos en la fecha de inicio del nuevo curso.

*Décimo.–* Las vacantes que se produzcan una vez resuelto el concurso de méritos correspondiente, se cubrirán mediante convocatoria pública de pruebas de

roaren 25eko 29/1983 Legearen 19. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu honen bigarren artikuluan araututako meritu-lehiaketarako deialdiaren epea, 1985ari dagokionean, urtearen hiru azken hiruhilabetealdira pasatzen da, behin Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren indarrean jarriz gero, HABEren Zuzendari Orokorrak deialdi guztiak batean aurtengo Urrian argitaratuko beharko dituelarik eta leku berria eskura dezaten irakasleek horretan, 1985eko Azaroaren lean hasi beharko dutelarik.

Gasteiz, 1985.eko Uztailaren 12an.

Kultura eta Turismo Sailburua,
LUIS MARIA BANDRES UNANUE.

## I. ERANSKINA

### MERITU-BAREMOA

| | Puntuak |
|---|---|
| *1.– Zerbitzuak* | |
| 1.1. Euskaltegi publikoan edo HABEren Glotodidaktika Taldean zerbitzu aktiboan emandako urteko | 2 |
| 1.2. Euskaltegi publikoko Idazkari bezala emandako urteko | 0,5 |
| 1.3. Euskaltegi publikoko Zuzendari bezala emandako urteko | 1 |
| 1.4. HABEko Ikuskatzaile bezala emandako urteko | 3 |
| 1.5. HABEren Zuzendari Orokorrak edo bertako Batzorde Akademikoak onartutako proiekturen batean partaide izateagatik, gehienez | 3 |
| *2.– Argitalpenak* | |
| Alfabetatze, Euskalduntze edo Glotodidaktika arloko argitalpenengatik, gehienez | 10 |
| *3.– Ikasketak* | |
| 3.1. Euskal Filologiako edo Pedagogiako Doktoradutzagatik | 8 |
| 3.2. Euskal Filologiako edo Pedagogiako Lizentziaturagatik | 5 |
| 3.3. Beste Lizentziatura edo Goi Mailako Titulazioagatik | 2 |
| 3.4. Euskal Filologian espezialdutako Irakasle-Diplomagatik | 2 |
| 3.5. Euskaltzaindiaren B tituluagatik | 1 |
| *4.– Beste zenbait meritu* | |
| Aurreko zerrendetan aipatu ez diren beste meritu edo burututako zerbitzuengatik, gehienez | 10 |

selección de carácter libre, conforme a lo previsto en el párrafo 2 del artículo 19 de la citada Ley 29/1983, de 25 de Noviembre.

DISPOSICION TRANSITORIA

El período de convocatoria de concurso de méritos regulado en el artículo segundo de la presente Orden, se traslada para el ejercicio 1985 al tercer trimestre del año, una vez entre en vigor la presente Orden tras su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, debiendo publicar el Director General de HABE todas las convocatorias conjuntamente durante el mes de octubre del año en curso, e incorporarse los profesores que obtengan nuevo destino el 1 de Noviembre de 1985 al euskaltegi al que hayan sido destinados.

Vitoria-Gasteiz, a 12 de Julio de 1985.

El Consejero de Cultura y Turismo,
LUIS MARIA BANDRES UNANUE.

## ANEXO I

### BAREMO DE MERITOS

| | Puntos |
|---|---|
| *1.– Servicios prestados* | |
| 1.1. Por cada año de servicio como profesor en activo de un euskaltegi público | 2 |
| 1.2. Por cada año de servicio como Secretario de un euskaltegi público | 0,5 |
| 1.3. Por cada año de servicio como Director de un euskaltegi público | 1 |
| 1.4. Por cada año de servicio como inspector del HABE | 3 |
| 1.5. Por haber tomado parte en un proyecto aprobado por el Director General del HABE o por el Consejo Académico del Ente, hasta un máximo de | 3 |
| *2.– Publicaciones* | |
| Por publicaciones relacionadas con la alfabetización, euskaldunización o glotodidáctica, hasta un máximo de | 10 |
| *3.– Estudios realizados* | |
| 3.1. Por Doctorado en Filología Vasca o en Pedagogía | 8 |
| 3.2. Por Licenciatura en Filología Vasco en Pedagogía | 5 |
| 3.3. Por otras Licenciaturas o Titulaciones de Grado Superior | 2 |
| 3.4. Por Diplomatura en Magisterio en la especialidad de Filología Vasca | 2 |
| 3.5. Por título B de Euskaltzaindia | 1 |
| *4.– Otros méritos* | |
| Por otros méritos o servicios prestados que no estén recogidos en los apartados anteriores, hasta un máximo de | 10 |

## II ERANSKINA

## INSTANTZIA

ESKATZAILEAREN DATUAK
Lehenengo abizena: ____________ Izena: ____________
Bigarren abizena: ____________

Jaiotze-data: ____________ Jaioterria: ____________

Helbidea: ____________ Herria: ____________

N.A.N. ____________ Telef.–zenbakia: ____________

____________

TITULAZIO AKADEMIKOA

BESTE TITULUAK

AINTZINATASUNA EUSKALTEGI PUBLIKOETAN

Euskaltegi Publiko batean plantilako irakasle bezala lanean aritzeko gainditutako azterketaren data:

____________

EUSKALTEGI PUBLIKOETAN IZANDAKO IBILBIDEA

Lehenengo Euskaltegia ____________

Besterik ____________

Eskari-egunean lanean diharduen Euskaltegia ____________

ARGITALPENAK

BALORATZEKO BESTE MERITURIK

DEITUTAKO PLAZEN ARABERA ESKATZAILEAREN LEHENTASUNAK:

| | |
|---|---|
| 1. ____________ | 6. ____________ |
| 2. ____________ | 7. ____________ |
| 3. ____________ | 8. ____________ |
| 4. ____________ | 9. ____________ |
| 5. ____________ | 10. ____________ |